

# HERRIZ HERRI

## Eibar

### «Euskeralagunak»

Askotxok itaundu\* deuskue «Euskeralagunak» izeneko elkartearen berri, zela eta nola egin behar daben harpidetzá jakin nahirik. Gehienok ba dakite, 25 pezeta dala elkarte horren hilabeteko kuota txikiena; hala ere, ez dakie nori eman behar deutoen izena, edota nor diharduan kuota horreek kobratzen. Horrelako horreek, hemen ezartzen dogun txartel erakoa bete dalkee, eta besterik gabe ikas-tolara bidaldu.

Izen eta bi apellidu ... ..  
Bizilekua ... ..  
Telefonia ... ..  
Zer kuota ordainduko dozu? ... ..  
(Kuota txikiena, hilabeteko, 25 pezeta da; hortik gora nahi dozana).  
Zer modutan ordaindu nahi dozu? Banko, Aurrezki Kutxa ala kobradore bidez? ... ..  
Eta noiz? Hilabetero? Hiru-hilabetero, sei-hilabetero ala urtero? ... ..

Jakin eizue, elkartearentzat hobe lizatekela, kuotaren ordain-teta urtean behin edo ahal danik aldirik luzeenean egitea, eta Banko\* edo Aurrezki Kutxaren baten bitartez, ahal bada.

### ETXE ALDAKETA

Harpidedun batek etxe bizitza aldatzen dauanean, zuzenbide berria jakin eragin behar leuskioe ANAITASUNAKo zuzendariei. Oste-rantzean\*, korreo lagunek «joantzat» edo «ezezaguntzat» jo izaten dabe hasiera batetako zuzenbidea; eta guk geuk, Albistariok, ibili

behar izaten dogu harpidedunen aztarrenaren\* atzetik, «Interpola-bera bagina legetxe». Ez ahaztu ba, etxe aldaketa egin behar do-zuenean. Aurrez eskerrik asko.

### «EGURENTARRA»

Urtearen azkeneko ANAITASUNAREN zenbakian, Zuloagari bu-ruzko eta «Egurentarra»-k Izenpeturiko albisteak\* irakurri ahal izan genduzan. Ongi etorri, «Egurentarra» ezezagun hori. Zatoz, gura dozunean, albiste emate honetara.

### C. D. EIBAR

Urtarrilaren\* 30ean, berrogeitasei urte dira, Club Deportivo Eibar sortu zala. Ez dira artaleak\* gero horrenbeste urte. Urte ho-rreetan Club Deportivo dalakoa erabat\* mamitu\* da, gure herri honetako kultura nahiz deporte arazoetan. Ez da alferrik iragan\* ia mende\* erdi.

46. urteurrena dala ta, Mendi Argazki Sariketa bat antolatatu dabe. Bazkideen artean horrenbeste mendigoizale dituan elkarteak begira dalala beti aurrera, gora, nekatzeke\* eta etsitzeke\*, gol mailletara iritxi\* arte. Danok espero dogu, eta herriak behar dau. Zorlonak.

ALBISTARIAK

Egunaren buruan, mila pertsona pasatzen dira zure kotxearen paretz jarri elozu "Anaitasuna" letrero bat.